

LABURRERAN

LITERATURA

Jose Saramagoren 'El hombre duplicado' eleberria salgai izanen da gaurtik aurrera

ALFREDO ALDAI / EFE
Jose Saramago.

Portugalen eta Brasilen plazaratu eta gero, Alfagarak eman du orain Jose Saramagoren *El hombre duplicado* lan berria. Gaurtik aurrera eskuratu ahal izanen da, bai eta Euskal Herriko liburu dendetan ere. Tertuliano Maximo izeneko pertsonaia da eleberriko protagonista. Historia irakaslea da bera. Pertsonaiak bera bezalakoa den beste gizon bat badela jakinen du pelikula bat ikusten eta hura bilatzeari ekinen dio. «Nik ez dakit nor naizen, eta uste dut inor ez dela gai nor den errateko», azpimarratu du Saramagok bere eleberri berriari buruz. «Tragediatzat» jo zuen lan hori idazleak.

LITERATURA

Txileko diktadurari buruzko liburua plazaratu dute

Txileko diktadurako biktimei hitza eman die *Las historias que podemos contar* liburua. Cuarto Propio argitaletxeak plazaratu du. 22 desagerturen berri ematen du obrak, batetik, haien bizitzari buruzko datuen eta anekdoten bidez. Bestetik, fikziozko 21 testu jaso ditu liburua, guztiak diktaduraren ingurukoak. Liburu hori biktimen lagunek eta senitartekoei hainbat idazlerekin egiten duten mintegiko lanaren emaitza da.

MUSIKA

Disko berria grabatzen ari dira REM taldeko musikariak

REM talde estatubatuarreko kideak euren disko berria grabatzen ari dira. Hamahirugarrena izanen da haien ibilbidean. Oraingo «soinu primitiboa» dute abestiek, taldeko kideek azpimarratu dutenez. Diskoa grabatu ondoren zuzenean aurkezteko asmoa du REM taldeak. Gainera, euren ibilbideko kanturik arrakastatsuenekin eta esanguratsuenekin disko bat osatzen ari omen dira REM taldeko kideak.

ARTEA

Eames senar-emazteen lanari buruzko atzera begirako erakusketa egingen du Artiumek hil honetan

Gasteizko Artium museoak Charles eta Ray Eames senar-emazteen lanari buruzko atzera begirako erakusketa egingen du hilaren 22tik maiatzaren 4a bitarte. XX. mendeko arkitekturen eta diseinuaren esparruan lan nabarmena egin zuten Charles eta Ray Eamesek, eta haien proiekturik esanguratsuenak erakutsiko dituzte Artiumen. Erakusketak Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren babesarekin.

ZINEMA

Dokumentalei buruzko gunea bultzatu du Docupolisek Interneten

Bartzelonako Docupolis jaialdiak dokumentalari buruzko gunea bultzatu du Interneten, genero horri buruzko informazio zabala eskaintzeko.

WWW.tercer-ojo.com helbideak jaialdien eta dokumentalari buruzko elkarten berri eskaintzen du. Hasteko, Patricio Guzman zinemagile txiletarrari egindako elkarrizketa aurki daiteke gune horretan, bai eta dokumentalari buruzko beste-lako artikulua ere.

ZINEMA

Antoine de Caunesen lan bat izanen da Berlingo jaialdian

Antoine de Caunesen *Monsieur N* izenburuko filma Berlingo zinema jaialdiko sail ofizialean ariko da lehian, datorren otsailaren 6tik 16a bitarte. Napoleonen inguruko pelikula egin du Caunes zinemagileak. Philippe Torreton aktoreak betetzen du Napoleonen rola. Filmean agertzen dira baita ere Richard E. Grant, Stephen Fry eta Roschdy Zein, besteak beste. Frantziar otsailaren 12an estreinatuko dute filma.

KRITIKA ARTEA

Ismael Manterola Ispizua

Gabonetako erakusketa: Kandinsky

'Kandinsky bere testuinguruan'

Lekua: Bilboko Guggenheim museoa.

Data: Urtarrilaren 19ra arte.

Rubensen erakusketaren iruzkina egin ondoren, Guggenheim museoaren proiektuari hobeto egokitzen den beste bati buruz idatziko dut oraingo honetan.

Vasili Kandinsky Errusian jaio zen 1866an eta pintura abstraktuaren «asmatzailea» izatearen ospea du XX. mendearen bigarren hamarkadan egindako lan praktikoa eta teorikoa esker.


Solomon R. Guggenheim arte bildumaren oinarri oinarritzak dira Kandinskyren artelanak. Hilla Rebay New Yorkeko Guggenheim Museumeko lehendabiziko zuzendariak aholkatua, Kandinskyren 150etik gorako obra bildu zituen eta ia beste artista batzuen artelanak erosteko eredutzat hartu zuen; hain zen itsua Rebay pintura abstraktuaren aurrean.

Horri esker gaur egun Kandinskyren lan esanguratsu eta ederrenak New Yorkeko museoak gordetzen ditu. Noizean behin bildumako artelanen bidez sasi-erakusketak antolatzen dituzte Guggenheim Fundaziokoak. Oraingo honek berriz, ondo asmatu du bildumaren adibide batzuek so-toetatik ateratzeko beharra eta erakusketa didaktikoa arteko harremana uztartzen.

Kandinskyren ibilbidea Europako artearen testuinguruan jartzeko hiru garaietan banatu dute bere obra, eta bakoitzarekin hiru areto bete dituzte garai hartan Kandinskyren inguruan lan egin zuten artistekin.

Lehendabizikoa Alemanian pasa zuen denboraldi erabakigarria da. Bertan ezagutu zuen espresionismo alemaniarra eta Der Blaue Reiter (Zaldizko urdina) taldea osatu zuen Marc pintorea eta abarrekin. Hortik aurrera abstrakzioa jo zuen eta, nire ustez, koadrorik interesgarri eta ederrenak pintatu zituen. Areto honetan dauden lanen bidez abstrakzioaren sorreraren aurreko zirrara suma dezakegu.

Bigarren aretoan 1914. urte-tik 1921 bitartean Errusian pasa zuen denboraldiaren adibideak daude, konstruktibismoarekin izan zituen harremanen adierazle. Iraultzak sortutako arte berriarekin bat egin zuen Kandinskyk eta horregatik bueltatu zen jaioterrira, Malevitx, El Lissitzky, Rodchenko eta abarrekin batera. Baina 1922an Bauhaus eskola sortu zuten



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Kandinskyren erakusketako artelan bat.

Alemanian eta bertan irakasle hasi zen proiektu hartan ezinbesteko bilakatu arte. Garai honetako kontaktuak Klee, Albers, Moholy-Nagy izan ziren.

Naziek 1933an Bauhaus eskola itxi ondoren Parisera ihesi joan zen eta pintatzen jarraitu zuen. Surrealismoaren giroa zen nagusi garai hartan Frantziako hiriburuan eta Kandinskyren pinturak Arp edo

Joan Miroren eragina sumatu zuen. 1944an hil zen naziengandik ihesi Neully-sur Seine herrian.

Kandinskyren inguruan ia mende erdiko artearen historia-rik liluragarriena egin daiteke eta Bilboko Guggenheim museoak ondo baino hobeto erakuts dezake abstrakzioaren sorrera eta bilakaera bilduman gordeta dituen artelanekin.

BERTSO SAIOA
OIARTZUN

Gai Jartzailea: Josu Goikoetxea
URTARRILAK 5, IGANDEA,
ARRATSALDEKO 7etan
MADALENSORON

Euskal Herria Bizi



X. SILVEIRA



A. EGAN



X. LIZASO



J. MARTIN



J. MAIA



I. ELORTZA



U. ITURRIAGA



A. ARZALLUS



BERTSO SAIOA OIARTZUN

Gai Jartzailea: Josu Goikoetxea
URTARRILAK 5, IGANDEA, ARRATSALDEKO 7etan
MADALENSORON